



OHAR OROIGARRIA	NOTA RECORDATORIA
<p>Ikasturte hasierako prozesuan izangai bakoitzari esleipenerako lehentasunezko eskubidea ematen dion plaza mota argitaratzeak iaz sortu zituen zalantzak saihesteko, honako ohar hau ematen da:</p> <p>Gogoratu behar da ez dela argitaratuko lehentasun-eskubidearen zerrendarik. Irakasle bakoitzak HEZIGUNEAn egiaztatu behar du zer ikastetxek eta plazak emango dien lehentasunezko esleipen-eskubidea, ezarritako baldintzak betez gero.</p> <p>Abuztuan 2022-2023 ikasturte hasierako esleipenetan lanpostu bat lortu zuten pertsona guztiek ez dute lehentasunezko eskubidea aitortuta. Era berean, gerta daiteke 2022-2023 ikasturte-hasierako esleipenen zerrendan agertu ez arren lehentasunezko esleipen-eskubidea duten pertsonak egotea; hori da zerbitzu-eginkizunen kasua (deialdi berriak eta luzapenak)...</p> <p>Azkenik, gogorazi behar da hasieran lehentasun-eskubidearekin agertzen diren eta, ondoren, egonkortzeko salbuespenezko prozesuan behin betiko hautatuak izan diren langileen esleipenak 2023ko otsailaren 24koa, Hezkuntzako sailburuarena, 2022ko ekainaren 16ko Agindua aldatzeko AGINDUA ezarritakoaren arabera egingo dira, eta ez ordezkapen-zerrendetarako hautagaiei soilik aplikatu dakiekeen lehentasunezko esleipen-eskubidearen arabera.</p>	<p>A fin de evitar las dudas que suscitó el año pasado la publicación del tipo de plaza que otorga a cada candidato/a un derecho preferente de adjudicación en el proceso de comienzo de curso, se procede a emitir la siguiente nota:</p> <p>Cabe recordar que no se va a proceder a publicar ningún listado de derecho preferente. Cada docente debe comprobar en HEZIGUNEA el centro y tipología de plaza que les otorgará el derecho de adjudicación preferente en caso de cumplir los requisitos fijados.</p> <p>No todas las personas que obtuvieron un puesto en las adjudicaciones de comienzo de curso 2022-2023 en agosto tiene reconocido el derecho preferente. De igual forma, puede darse el caso de personas que, aunque no figuren en el listado de adjudicaciones de comienzo de curso 2022-2023, tengan derecho de adjudicación preferente ; es el caso de comisiones de servicio (nuevas convocatorias y prórrogas),...</p> <p>Finalmente, cabe recordar que las adjudicaciones del personal que inicialmente figure con derecho preferente y, posteriormente, resulte seleccionado definitivamente en el proceso excepcional de estabilización, se realizarán en virtud de lo establecido en la ORDEN de 24 de febrero de 2023, del Consejero de Educación, por la que se modifica la Orden de 16 de junio de 2022, y no en virtud del derecho de adjudicación preferente, sólo aplicable a candidata/os a las listas de sustituciones.</p>